



NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA HORIEK

KONTROLATZEA ETA EGIAZTATZEA

Neurri zuzentzaileak

Ezadostasunek (halakorik badago) identifikatuta geratu behar dute, eta ondoren, neurri zuzentzaileak ezarri ostean, maila onargarrietara murriztu edo desagertu egin beharko dute.

Auditoretza gehienak planifikatuta egoten dira, gabeziak atzematen direnean neurri zuzentzaileak ezartzeko.

Hutsune-mota batzuk azkar zuzendu daitezke, besteak beste: agiriak aldatzea, sinadurak edo txosten batean aldaketak egitea.

Ez da lehenasunezkoa neurri zuzentzailearen hasiera, hau da, ez da lehenasunezko neurri zuzentzailea ahalik eta azkarren aplikatzea. Egokiagoa da denboraren banaketa ongi definitzea, eta neurri zuzentzaileei ekiteko denbora horiek egokiak eta errealistak direla ziurtatzea.

Neurri zuzentzaileak auditoretzaren parte direnez, jarraipen- eta egiaztatze-prozesu batean neurri horiek berrikusteko eta erraz kontrolatzeko aukera emango duen txosten-eredua erabili behar da.

Neurri zuzentzaileak kontrolatzea eta egiaztatzea

Neurri zuzentzaileen programa ezarri ostean, horren kontrola eta egiaztatzea zehaztu behar dira, neurriak modu honetara erregistratu ahal izateko:

- Gabezia bera.
- Neurri zuzentzailearen azken emaitza.
- Nahi den emaitza lortzeko adostu den metodoa.
- Neurria abiaraziko duen pertsona arduraduna.
- Denbora-programa eta amaitzeko data.

Hau da, neurri zuzentzaile guztiak dokumentatu behar dira. Ezarritako neurri batek edo prozedura baten aldaketak izandako arrakastaren berri ematen duen agiria hurrengo auditoretzetan lagungarria izango den proba da.

Neurri zuzentzaile baten eraginkortasuna egiaztatzeko, beste auditoretza bat egingo da berriaz inplikaturik dagoen arloan

